

**U**topia beharrezko da aurrera egiteko. Baina non dagoen aurrera egite hori, utopia elikatu eta mamiz jantziko duten iruditeriek esango digute. Hau da, zer garen eta zer izan nahi dugun bihar baino lehen gaur bertan, egiten dugun horretan, bizi dugun eta bizi gaituen bizitza horretan. Iruditeriak nora bat dira eta baita nola bat ere, eta oroz gain zer konpartitu bat, taldetasun ekin-tza bat, komunitate sare baten eraikuntza, herri baten osasuntza.

Iruditeria berriak behar ditugu. Iruditeria berriak eraiki behar ditugu. Guk geuk. Guk pentsatu behar dugu geure burua, inork pentsa gaitzan baino lehen. Eta horretan, pentsatzen eta sortzen, eman genituen bi egin uztailean Jakin Jardunaldian, Usurbilen, UEU eta bertako Udalarekin batera antolatutako saioetan (ikusgai dituzu Jakin.eus atarian). Jardunaldiaren emaitza da zenbaki hau, baina ez hura bakarrik, osotua baizik, aditu gehiagoren hitzak eta irudiak ere badira-eta.

Aurten 50 urte Parisko Maiatzetik. Horixe da ikono bihurtu zai-gun historiako pasartea. Ikono, mugarri eta baita arropa kate handien erruz saltzen diren eskulan merkez, sarri ume eskuz, jositako elastikoen leloa. Galtzada-harrien azpian hondartza zegoela oihukatzen zuten Parisen, harlauzak lurretik erauziz eta poliziari jaurtikiz. Eta hala izan. Kontrakarrean zein hondartzara iritsi garen erakutsi ditu Unai Iturriagak kontrazalean. Orduko harriak gaurko hondarra ote.

68ko Paris. Baina ez Paris bakarrik. Mundu osoan izan ziren erre-boltak, iraultza saioak eta gerrak. Baita Euskal Herrian ere. 60-70eko hamarkadetako Euskal Herriak Parisen aldaera propioa izan zuela esan liteke. Aldaera horren berri begirada propio eta kokatutik ematen digu Elixabete Garmendia Lasa kazetariak bere artikulu argigarrarian, hasteko. Amaia Lasak orduko Euskal Herri hartan feminismoa-ri bidea ireki zion lehen aldiz poesian, garai utopiko haien alaba izaki, elkarrizketan kontatzen duen legez. Orduko eta ondorengo iraultzei begia eta memoria jarri die.

Eta utopia zer da, bada, zer ikasi dugu 68 hartatik. Alba Garmendia filosofian doktoregaiak 68ko Maiatzak ekarri zuen utopia-ren berresanguratzeaz idatzi du, egingarri izan behar duen mun-

duaz, hain zuzen. Eta egingarri den mundu horrek bietarik behar duela dio Eduardo Apodaka soziologoak, utopiatik adina pragmatismotik, eta praxian egin egiten dela idatzi du artikulu sakon eta esanguratsu batean.

Egungo eraldaketa eremu edo utopia praktiko horietatik badira bi azpimarragarriak izan daitezkeenak: zaintzaren utopia eta utopia sozioekologikoa. Biak dira geure eguneroko bizitzan eragin zuzena dutenak, eta biak ditugu erronka eta auzi. Eta bi eremu horietaz dihardute ondorengo adituek. Uzuri Aboitiz Hidalgo antropologian doktoregaiak, zaintza erdigunean jartzean, eraldaketa soziala ahalbidetu dezaketen indargune eta mugak bistaratu dizkigu. Zaintzaren aldarrikapen politiko eta sozial horren praxi zehatz baten berri ematen du Begoña Zearretak, Bizkaiko adinekoen egoitzetako langileak, urtebeteko greba gogorrean bizi izandako esperientziatik abiatuta.

Arazo sozioekologikoa zibilizazio krisi sakon gisa ikusten du Iñaki Barcena politologoak, eta, horregatik, ekologiaren, sozialismoaren eta feminismoaren arteko aliantzak ekarriko duen pentsamendu utopiko berri baten beharra defenditzen du. Pentsamendu utopiko horren alternatiba pragmatikoa Bizi! mugimenduaren jarduna litzateke, krisi ekologikoa eta soziala batean borrokatzen dituen. Mugimendu altermundista horretako kide Anaiz Agirrek eta Xabier Harluxetek Euskal Herri burujabe, jasangarri eta solidario baten arrastoan jartzen gaituzte. Eta Begoña Huarte ekintzaileak egun bizi dugun migratzaile eta errefuxiatuen krisi humanitarioari buruz eta krisi horri gure gizarteak ematen dion eta eman beharko liokeen erantzunari buruz egiten du gogoeta.

Zenbakia ixteko, Itziar Ugarteri kulturari, Jaime Altunari soziolin-  
guistikan eta Ignazio Aiestarani hemen eta munduan, azken hila-  
beteetan nabarmengarri egin zaiena pentsagai egin dute *Egunen  
gurpilean* atalean.